Tal y como establece el artículo 17 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, «Una vez concluido el período de información pública, el órgano competente para otorgar la autorización ambiental integrada remitirá copia del expediente, junto con las alegaciones y observaciones recibidas, a los órganos que deban pronunciarse sobre las diferentes materias de su competencia».

Beraz, informazio publikoaren izapidea bete ondoren egin behar da Osasun Saileko txostenaren eskaera. Eskaera horrekin batera, informazio publikoko epealdian jasotako alegazioen kopia aurkeztu behar da.

5.– Prozeduraren iraungipena.

Prozedura baliogabetzea eskatzen da, 16/2002 Legearen 21. artikulua arabera, ingurumen-baimen integratua lortzeko eskaera egin zenetik 10 hilabete baino gehiago pasatu direlako.

Prozeduraren iraungipenari dagokionez, Poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak ezartzen du organo eskudunak prozedura amaitzeko ebazpena emango duela, gehienez, 10 hilabeteko epean. Epe horretan ebazpen espresurik ematen ez badu, aurkeztutako eskaera gaitzetsi egin dela ulertu beharko da.

Horrekin lotuta, gogoratu behar da espediente baten izapideak egiteko denbora ez dela modu linealean kontatzen, baizik eta etenaldiak izaten dituela, normalean, organo eskudunak baimen-eskaera ondo egiteko eskatutako dokumentazio osagarria aurkeztu ahal izateko.

Edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen arabera, prozedura bat amaitutzat jo behar da erabakia ematean, eskaeran atzera egitean, eskaeraren oinarrian dagoen eskubideari uko egitean -ordenamendu juridikoak uko egitea debekatzen ez badu- eta prozeduraren iraungipen-adierazpena egitean.

Aipatutako arauaren 92. artikuluan, iraungipenaren tresna arautzen da. Hala, prozedura bat interesdunari egotz dakiokeen arrazoi batengatik geldiarazten denean, administrazio publikoak espedientearen iraungipen-adierazpenaren prozedura has dezake, hartara, baimenaren eskatzaileak prozedura luza ez dezan.

Orain arte adierazitakoari jarraiki, esan behar da Petróleos del Norte SAK sustatutako ingurumen-baimen integratuaren espedientearen ez dagoela ingurumen-organoi iraungipen-prozedura hastea ahalbidetzen dion inguruabarririk.

6.– Jarduera-lizentziarik ez izatea eta RAMINP dekretua ez aplikatzea.

Instalazioak jarduera-lizentziarik gabe funtzionatzen du, eta, hala ere, obra-lizentziak eman dizkiote, aurrez ingurumen-inpaktuaren adierazpena egin gabe.

Por lo tanto, la solicitud de informe al Departamento de Sanidad se lleva a cabo en un momento posterior al trámite de información pública. Dicha solicitud se acompaña de copia de las alegaciones que se pudieran recibir en el citado trámite de información pública.

5.– Caducidad del procedimiento.

Solicitan que se declare la nulidad del procedimiento al haber transcurrido más de 10 meses desde que fue realizada la solicitud para la obtención de la Autorización Ambiental Integrada, tal y como establece el artículo 21 de la Ley 16/2002.

En cuanto a la caducidad del procedimiento debe recordarse que el artículo 21.1 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación establece que el órgano competente dictará la resolución que ponga fin al procedimiento en el plazo máximo de 10 meses, y que transcurrido dicho plazo sin haberse notificado resolución expresa, podrá entenderse desestimada la solicitud presentada.

En este marco, debe recordarse que el tiempo para la tramitación de un expediente no se computa de una manera lineal, sino que el mismo sufre periodos de suspensión relacionados, habitualmente, con los plazos que el promotor necesita para atender el requerimiento de documentación complementaria que hubiera podido formular el órgano competente para entender debidamente formulada la correspondiente solicitud de autorización.

En todo caso, debe recordarse que la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común establece que ponen fin al procedimiento la resolución, el desistimiento, la renuncia al derecho en el que se funde la solicitud, cuando tal renuncia no esté prohibida por el ordenamiento jurídico, y la declaración de caducidad.

El artículo 92 de la citada norma regula la caducidad como instrumento para que la Administración Pública pueda dar inicio a un procedimiento de declaración de caducidad de un expediente cuando se produzca su paralización por causa imputable al interesado, y así evitar que los procedimientos se prolonguen en el tiempo por el solicitante de la autorización.

En virtud de lo hasta aquí expuesto, en el expediente de autorización ambiental integrada promovida por Petróleos del Norte, S.A. no concurre ninguna circunstancia que permita al órgano ambiental iniciar el procedimiento de caducidad del mismo.

6.– Ausencia de licencia de actividad y aplicación del RAMINP.

El funcionamiento de la planta sin la Licencia de Actividad, y a pesar de ello se le hayan concedido licencias de obra sin las previas declaraciones de impacto ambiental.

RAMINP dekretua ez da bete, kontuan izanik instalazioak herriguneetatik 400 metro baino gutxiagoko distantzian daudela.

Baimenaren eskaera egitean sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Petróleos del Norte SA (Petronor) enpresak, besteak beste, petrolio-finketarako udal-lizentzia du, 1968ko irailaren 14ko datarekin. Ondoren, beste lizentzia batzuk jaso zituen findegia handitu eta unitate berriak sortzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren arabera, sailkatutako jarduera bat martxan jarri ahal izateko udal-izaerako lizentzia behar da.

Lege horretako 64. eta 65. artikuluen arabera, emandako lizentzietan ezarritako neurriak betetzen direla bermatzeko, dagokion udalak erabaki behar du zer neurri hartu eta, lizentziarik ez duen jardueraren baten berri izanez gero, zer jarduera egin.

Bestalde, Airearen kalitateari eta atmosfera babesteari buruzko azaroaren 15eko 34/2007 Legeko xedapen indargabetzaile bakarrak indargabe uzten du azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuaren bidez onartutako jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko araudia. Hala eta guztiz ere, araudi hori indarrean egongo da gai horri buruzko araudirik ez duten erkidego eta hiri autonomoetan, araudi hori ezartzen ez den bitartean.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak zehazten du sailkatutako jarduerari aplikatu behar zaien araubide juridikoa, eta, horren arabera, jarduera batek ez du baldintza jakinik bete behar herriguneei distantziari dagokionez. Hala, ulertzen da tokiko agintariek lurralde-antolamenduaren arloan dituzten eskuduntzen esparruan hartu behar dituztela mota horretako erabakiak.

C) Ingurumenari buruzko auziak:

1.– Auzi orokorrak.

a) Herritar guztiak dira ingurumenaz gozatzeko oinarrizko eskubidearen titullarrak.

b) Gaiari buruz egindako araudi berrienak hartu behar dira kontuan (ondare naturalari eta biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea, 1370/2006 ED, 34/2007 Legea, 948/2005 ED, 27/2006 Legea, 508/2007 ED).

c) Teknologia erabilgarri onenak (TEO) ez dira erabiltzen: hozketa-dorreak, zuziak eta UZA (usainak argi erakusten du gaizki funtzionatzen dutela).

El incumplimiento del RAMINP, teniendo en cuenta que las instalaciones existentes están a menos de 400 metros de los núcleos de población.

De conformidad con la documentación presentada por el promotor, en el momento de la solicitud de la autorización de referencia, Petróleos del Norte, S.A. (Petronor) tenía, entre otras, licencia municipal de fecha 14 de septiembre de 1968 para la actividad de refinado de petróleo. Posteriormente se concedieron otras licencias para la ampliación de la refinería y la creación de nuevas unidades.

En este sentido, debe recordarse que en virtud de lo dispuesto en la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco la licencia que habilita para la implantación de una actividad clasificada tiene naturaleza municipal.

Atendiendo a lo dispuesto en los artículos 64 y 65 de la citada norma corresponde al Ayuntamiento respectivo el desarrollo de cuantas medidas sean necesarias para garantizar el cumplimiento de las medidas impuestas en las licencias concedidas, así como las actuaciones a llevar a cabo cuando se tiene conocimiento de la existencia de una actividad sin licencia.

Por otro lado, debe señalarse que la Disposición derogatoria única de la Ley 34/2007, de 15 de noviembre, de calidad del aire y protección de la atmósfera, establece que queda derogado el Reglamento de actividades molestas, insalubres, nocivas y peligrosas, aprobado por Decreto 2414/1961, de 30 de noviembre. No obstante, el citado Reglamento mantendrá su vigencia en aquellas comunidades y ciudades autónomas que no tengan normativa aprobada en la materia, en tanto no se dicte dicha normativa.

En el caso de la Comunidad Autónoma del País Vasco la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco estableció el régimen jurídico aplicable a las actividades clasificadas. Dicho régimen no establece condición alguna en relación con las distancias que deben respetar las actividades en cuanto a las zonas habitadas, entendiéndose que dicha decisión debe adoptarse en el marco de las competencias que las autoridades locales tienen reconocidas en materia de ordenación del territorio.

C) Cuestiones de carácter ambiental:

1.– Cuestiones generales.

a) Derecho fundamental al medio ambiente como bien de cuyo disfrute son titulares todos los ciudadanos.

b) Se deberán tener en cuenta las normativas más recientes (Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del patrimonio natural y de la biodiversidad, RD 1370/2006, Ley 34/2007, RD 948/2005, Ley 27/2006, RD 508/2007).

c) Ausencia de MTDs: torres de refrigeración, antorchas y EDAR (que por su olor pone de manifiesto su mal funcionamiento).

Poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuari buruz indarrean dagoen araudiaren xedeari jarraiki, ingurumen-organoak ingurumen-baimen integratua ematean, proiektuaren balorazio globala egiten da eta proiektua gauzatzeko bete behar diren baldintzak eta eskakizunak zehazten dira. Balorazio hori egiteko, araudi orokorra eta instalazioari dagokion berariazko araudia hartzen dira kontuan.

Ebaluazioa egin ondoren, alderdi hauei buruzko baldintzak eta betebeharrak jasotzen dira ingurumen-baimen integratuan:

a) Instalazioaren jardunerako baldintza orokorrak.

a.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

a.2.– Instalazioetan sortutako hondakinen kudeaketa egokirako baldintzak.

a.3.– Isurketei buruzko baldintzak.

a.4.– Zaratari buruzko baldintzak.

a.5.– Lurzoruari buruzko baldintzak.

b) Ingurumen Ikuskaritzako Programa.

b.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

b.2.– Immisioen kontrola.

b.3.– Isuritako uren kalitatearen kontrola.

b.4.– Zarataren kontrola.

b.5.– Jardueraren adierazleak.

b.6.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

b.7.– Ingurumena ikuskatzeko programaren dokumentu bategina.

c) Ezohiko egoeretan poluzioa prebenitzeko neurriak eta funtzionamendu-baldintzak.

Testuinguru horretan, ebazpen hau egiteko ulean, kontuan izan dira teknika erabilgarri onenen erabilera eta aplikagarria den legeria sektorialak ezarritako baldintzak, instalazioak igor ditzakeen substantzia poluitzaileen mugak zehazteko eta, oro har, instalazioa ustiatzeko beste baldintzak ezartzeko eta, hala, ingurumenaren babes-maila altua bermatzeko.

Besteak beste, 2003ko otsailean Europako Batzordeak findegiei buruz egindako BREF dokumentuaren edukia hartu da kontuan («Reference document on Best Available Techniques for Mineral Oil and Gas Refineries»). Araudi sektorialeki dagokienez, kasu honetan, kontuan hartu behar da, bereziki, uztailearen 20ko 833/1988 Errege Dekretua, zeinaren bidez Hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko 20/1986 Oinarrizko Legea gauzatzeko araudia onartzen den.

Atendiendo al objeto de la normativa vigente en materia de prevención y control integrados de la contaminación, en las autorizaciones ambientales integradas a emitir por este órgano se realiza una valoración global del proyecto y así determinar las condiciones y requisitos que deben respetarse en el desarrollo del mismo. Para realizar dicha valoración se toma en consideración tanto la normativa general como la normativa específica que le resulta de aplicación a la instalación.

Una vez realizada esa evaluación en la autorización ambiental integrada se recogen condiciones y requisitos sobre los siguientes extremos:

a) Condiciones generales para el funcionamiento de la instalación.

a.1.– Condiciones para la protección de la calidad del aire.

a.2.– Condiciones para la correcta gestión de los residuos producidos en la planta.

a.3.– Condiciones en materia de vertido.

a.4.– Condiciones en relación con el ruido.

a.5.– Condiciones en relación con el suelo.

b) Programa de Vigilancia Ambiental.

b.1.– Control de las emisiones a la atmósfera.

b.2.– Control de las inmisiones.

b.3.– Control de la calidad de las aguas vertidas.

b.4.– Control del ruido.

b.5.– Indicadores de la actividad.

b.6.– Control y remisión de resultados.

b.7.– Documento refundido del programa de vigilancia ambiental.

c) Medidas preventivas y condiciones de funcionamiento en situaciones distintas a las normales.

En este marco, a fin de determinar los valores límites de emisión de las sustancias contaminantes que puedan ser emitidas por la instalación, así como otras condiciones para la explotación de la misma a fin de garantizar una elevada protección del medio ambiente en su conjunto, en la formulación de la presente Resolución se ha tenido en cuenta tanto el uso de las mejores técnicas disponibles como las medidas y condiciones establecidas por el conjunto de la legislación sectorial aplicable.

En particular se ha considerado el contenido del documento BREF para refinerías «Reference document on Best Available Techniques for Mineral Oil and Gas Refineries», de febrero de 2003, de la Comisión Europea. Además en lo que se refiere a las normativas sectoriales, en este caso resulta de aplicación, en especial el real Decreto 833/1988, de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento para la ejecución de la Ley 20/1986 Básica de Residuos Tóxicos y Peligrosos.

Horrez gain, kasu honetan aplikagarria da martxoaren 12ko 430/2004 Errege Dekretua ere, errekontza-instalazio handietako zenbait poluitzaile atmosferara isurtzea mugatu eta petrolio-findegiek atmosferara egindako emisioak kontrolatzeko baldintzak ezartzen dituen.

Poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko araudia eta aipatutako BREF dokumentuak findegiei buruz ezartzen duena kontuan izanik, sustatzaileak teknika erabilgarri onenei buruzko dokumentazioa aurkeztu du. Ingurumen-baimen integratu honen lehenengo atalean daude jasota teknika horiek.

2.- Atmosferara egindako emisioak.

a) Alderdi hauei buruzko informazioa falta da:

– Atmosferara egindako emisioen guneak eta horien ezaugarriak. Emisio-gune bakoitzeko emisioen mugabaliok ezarri behar dira eta gune horiek ezartzea justifikatu behar da.

– Aurreikuspenen arabera, instalazioak airera, uretara eta lurzorura egingo dituen emisio motak eta horien kopurua -baita sor ditzakeen hondakin motak eta kopurua ere- eta ingurumenean izan ditzakeen ondorio nagusiak (IPPC Legearen 12. art.).

– Funtzionamendua ezohikoa denean izan ditzakeen emisioak (gertakarien kopurua).

– Emisio barreiatuen kuantifikazioa (KOL, H2S, merkaptanoak).

– Poluitzaileen emisioak. Petronorek ez ditu substantzia poluitzaileen fitxak eman.

b) Instalazioak atmosfera poluitzen du eta herri-tarrengan aldaketa mutageno kantzerigenoak eragin ditzateketen substantzia arriskutsuen emisioak egiten ditu.

c) Beharrezkoa da alderdi hauek argi adieraztea:

– Poluitzaileen emisio-puntuak (adibidez, KOLak).

– Ingurumen Sailak SO2 emisioen segimendua egiteko erabiltzen duen balatze estekiometrikoa.

– Inmisioei buruzko azterketaren balioak.

d) Inguruko airearen kalitatea hobetzeko neurri zuzentzaileak behar dira, Abanto-Zierbena eta Zierbenako udaletan PM10 partikulen eguneko gehieneko kontzentrazio-maila gainditzeko baita.

e) Urriaren 18ko 1079/2002 Errege Dekretuak araututako berun, bentzeno eta CO substantzien inmisio-mugei buruzko erreferentziak falta dira, baita artseniko, kadmio, nikel eta bentzo(a)pirenoaren helburu-balioak ere. Frogatuta dago azken horiek minbizia sortzeko duten arriskua.

Además en lo que se refiere a las normativas sectoriales, en este caso resulta de aplicación, en especial el Real Decreto 430/2004, de 12 de marzo, por el que se establecen nuevas normas sobre limitación de emisiones a la atmósfera de determinados agentes contaminantes procedentes de grandes instalaciones de combustión, y se fijan ciertas condiciones para el control de las emisiones a la atmósfera de las refinerías de petróleo.

En cumplimiento de lo dispuesto en materia de prevención y control integrados de la contaminación y atendiendo al contenido del documento BREF para refinerías arriba señalado, el promotor ha presentado documentación respecto a las mejores técnicas disponibles que, a su vez, se recogen en el apartado Primero de la presente autorización ambiental integrada.

2.- Emisiones atmosféricas.

a) La falta de información relativa a:

– Los focos de emisión atmosférica y características de los mismos. Se indica la necesidad de establecer los VLE considerados para cada foco y justificación de la inclusión de los mismos.

– Tipo y cantidad de las emisiones previsible de la instalación al aire, a las aguas y al suelo, así como, en su caso, tipo y cantidad de los residuos que se vayan a generar, y la determinación de sus efectos significativos sobre el medio ambiente (artículo 12 de la Ley IPPC).

– Emisiones en periodos de funcionamiento anómalo, n.º de incidentes.

– Cuantificación de las emisiones difusas (COVs, H2S, mercaptanos).

– Los contaminantes que se emiten, sin que Petronor facilite las fichas de las sustancias contaminantes.

b) Se indica contaminación atmosférica y emisiones de sustancias peligrosas que como carácter principal pueden producir transformaciones mutágenos cancerígenas en la población.

c) Se indica la necesidad de indicar claramente:

– Los puntos de emisión de contaminantes, como los COVs.

– Detalle del balance estequiométrico utilizado por el Departamento para el seguimiento de las emisiones de SO2.

– Valores de análisis de inmisión.

d) Se indica la necesidad de incluir medidas correctoras que mejoren la calidad del aire en el entorno al superarse la concentración máxima diaria de partículas PM10 en los municipios de Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena.

e) Se señala la falta de referencia a los valores límite de inmisión establecido para el Plomo, Benceno y CO regulados por el Real Decreto 1079/2002, de 18 de octubre, ni a los valores objetivos del Arsénico, Cadmio, Níquel y Benzo(a)pireno del que se ha demostrado su riesgo cancerígeno.

f) Instalazioetan erabilitako erregai motak alda daitezkeen baloratzea eskatzen da, eta erregai horiek sufre eta metal astunik gabekoak izatea.

g) Atmosferaren poluzioa zaintzeari buruzko alderdi hauek aipatzen dira:

– Poluitzaileen emisioei buruzko egungo neurriez gain, beste emisio-gune batzuetan ere neurri horiek aplikatzea eta herritarrentzat denbora errealean informazioa ematen duten panelak ezartzea eskatzen da.

– Emisio-guneetan detektagailuak instalatzea eta laginketa-puntuak diseinatu eta jartzea eskatzen da.

– Instalazioen mantentze-lanak etengabe egitea eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak istripuen erregistro sistematikoa egitea eskatzen da.

– Atmosferara egindako emisioei buruzko dokumentazioak kontrolen erregimen nahasia erakusten du eta zenbait datu ezkututzen ditu.

h) Erabilgarritzat jotzen da 5/2004 Errege Dekretu Legegilean eta Emisio Eskubideei buruzko Plan Nazionalan aipatutako informazioa gaineratzea.

i) Instalazioen barruko ibilgailuen zirkulazioa aldatzea eta «mihia» izeneko lekutik ateratzea eskatzen da, errepideko kamioi-zirkulazioa murrizteko.

Atmosferara egindako emisioek instalazioaren inguruan izan ditzaketan eraginei buruzko datuak ageri dira Petronorek aurkeztutako dokumentazioan (adibidez, flora kalte dezaketan poluitzaile atmosferikoak, airearen kalitateari buruzko datuak edo nitrogeno- eta sulfuremetaketen mailak).

Dena den, lehenago aipatu bezala, ingurumen-baimen integratuan jasotzen dira instalazioaren funtzionamenduari eta kontrol eta zaintzari buruzko baldintzak, instalazioak egindako emisioek airearen kalitatea hondatu ez dezaten, beti ere, ezarritako mugen barruan.

Horrekin lotuta, lehenik eta behin, hau jasotzen da ingurumen-baimen integratuan:

«Petróleos del Norte SA (Petronor) enpresaren instalazioak ustiatzean atmosferara egindako emisioek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako balioak gainditu behar. Prozesu horretan atmosferara isuritako poluitzaile oro bildu eta kanporatu egin behar da ihesbide egokien bidez, aurrez, emisio horien ezaugarrien arabera diseinututako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.»

Istripuz gertatutako emisioen probabilitatea murrizteko eta horien ondorioz sortutako efluenteez gizakien osasuna eta segurtasun publikoa arriskuan ez jartzeko behar diren neurriak hartuko direla zehazten da.

f) Se solicita valorar el cambio de combustibles utilizados en las instalaciones, y que sean libres de azufre y metales pesados.

g) Se señalan los siguientes aspectos relacionados con Vigilancia ambiental de la contaminación atmosférica:

– Sobre las instalaciones existentes se exigen a parte de los medidos actuales de emisiones de contaminación se añadan en otros focos de emisión y se pongan paneles informativos a la población en tiempo real.

– Se solicita instalación de detectores en los focos de emisión así como del diseño y colocación de los puntos de muestreo.

– Se solicita exigir un mantenimiento continuo de las instalaciones y registro sistemático de accidentes por la Consejería de Medio Ambiente del Gobierno Vasco.

– La documentación de emisiones atmosféricas demuestra un régimen confuso de controles y omite datos.

h) Se considera útil incorporar información relativa derivada del RDL 5/2004 y el Plan Nacional de Derechos de Emisión 2008-2012.

i) Se solicita modificar la circulación de vehículos por el interior de las instalaciones para que salgan por la zona conocida como la lengua, para reducir el tráfico por carretera de los camiones.

En la documentación presentada por Petronor se incluyen datos sobre los posibles efectos derivados de emisiones atmosféricas en el entorno de la planta, tales como presencia de contaminantes atmosféricos en la flora, datos sobre la calidad del aire ambiente o niveles de depósito de nitrógeno y azufre.

En cualquier caso, tal y como se ha señalado anteriormente en la autorización ambiental integrada se recogen condiciones de funcionamiento de la instalación y de control y vigilancia que garanticen que las instalaciones no generan riesgo de deterioro de la calidad del aire ambiente por debajo de los umbrales establecidos.

En este sentido, y en primer lugar, se recoge lo siguiente:

«La planta de Petróleos del Norte, S.A. (Petronor) se explotará de modo que, en las emisiones a la atmósfera, no se superen los valores límite de emisión establecidos en esta Resolución. Toda emisión de contaminantes a la atmósfera generada en el proceso deberá ser captada y evacuada al exterior por medio de conductos apropiados previo paso, en su caso, por un sistema de depuración de gases diseñado conforme a las características de dichas emisiones.»

Se especifica que se tomarán las disposiciones apropiadas para reducir la probabilidad de emisiones accidentales y para que los efluentes correspondientes no presenten peligro para la salud humana y seguridad pública.

D.1.1.2 (emisio-guneen identifikazioa), D.1.1.3 (emisioen muga-balioak), D.1.1.4. (gasak kapatzeko eta ebakuatzeko sistemak), E.1. (atmosfera egindako emisioen kontrola) eta E.2. (atmosfera egindako inmisionen kontrola) ataletan zehazten dira Petróleos del Norte SA (Petronor) enpresari eskatutako emisio-guneak, emisioen muga-balioak eta zaintza-programa (emisioen eta inmisionen arloan), emisioak prebenitzeko eta airearen kalitatea babesteko.

Horrekin lotuta, azpimarratu behar da, muga-balioak zehazteaz gain, kontuan hartu direla, batetik, emisio-gune bakoitzari dagokion oxigeno ehunekoa eta, bestetik, Errekuntza Instalazio Handien Emisioak Murrizteko Plan Nazionalen zehazten diren emisio-kargak.

Gainera, emisioen muga-balioak jartzeak ez du esan nahi emisio-guneen eraginpean dagoen eremuko immisio-mailek onartutako balioak gaindi ditzaketarik.

Karga poluitzailea ezagutu ahal izateko, enpresak txostena bidali behar du hileroko 1, 2 eta 3 guneetan isuritako kargari buruzko datuak emateko, SO₂, NO_x eta PST parametroetan. Horrez gain, urtean zehar metatutako kargari buruzko datuak ere bidali behar dira parametro bakoitzeko, emisioen joera balioetsi eta neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko.

Bestalde, SO₂-ri dagokionez, 1 eta 3 guneetan ez dira kontuan izango instalazio hauetan egindako SO₂ emisioak: sufrea berreskuratzeko SR 4 eta 5 instalazioak (1 gunearekin lotuta daude) eta SR 3A eta 3B instalazioak (3 gunearekin lotuta daude). Emisio-gune horien isurketak kontrolatzeko, karga poluitzailearen parametroak etengabe neurtzeko gailuak jarri behar dira. Hori egitea teknikoki bideragarria ez bada, sufre-instalazioek egiten dituzten emisioak kontrolatzeko prozedura bat landu behar da. Hala, sufrea berreskuratzeko instalazio horiek gutxieneko errendimendu hauek bermatu behar dituzte, baldintzak ezin hobekak direnean:

Sufre-instalazioa	Errendimendua %
SR5 (>50 t/egun)	97,5
SR4 (>50 t/egun)	97,5
SR3A (>50 t/egun)	97,5
SR3B (>50 t/egun)	97,5

Bukatzeko, sufrea berreskuratzeko instalazioen errendimendua hobetzeko plan bat aurkeztu behar da, bermatutako gutxieneko errendimendua handitu ahal izateko. Dokumentu horrek Ingurumen Sailburuordetzaren onarpena behar du.

Ingurumena Zaintzeko Programan jasotzen dira kontrol-parametro guztiak, neurtu beharreko poluitzaileak, neurketen maiztasuna, lagin-puntuak kokapenak

En los apartados D.1.1.2 «Identificación de los focos», D.1.1.3 «Valores Límites de emisión», D.1.1.4 «Sistemas de captación y evacuación de gases» y E.1 «Control de las emisiones de la atmósfera» y E.2 «Control de las inmisiones atmosféricas» se especifican los focos de emisión, los valores límite de emisión y programa de vigilancia (en emisión e inmisión) requerido a Petróleos del Norte, S.A. (Petronor) a fin de asegurar la prevención de las emisiones y protección de calidad del aire.

En este sentido, debe subrayarse que para la determinación de los valores límite impuestos se ha atendido además al porcentaje de oxígeno correspondiente a cada uno de los focos de emisión y a la carga de las emisiones correspondientes al Plan Nacional de Reducción de Emisiones para Grandes Instalaciones de Combustión.

Además se señala que los valores límite de emisión se entienden sin perjuicio de que en ningún momento los niveles de inmisión en la zona de influencia de los focos emisores superen los valores admisibles.

Se indica que a fin de conocer la carga contaminante, mensualmente la empresa enviará un informe con datos de la carga emitida en los focos 1, 2 y 3 en los parámetros SO₂, NO_x y PST. También se enviarán datos de la carga acumulada durante el año de cada parámetro para poder valorar la tendencia de las emisiones y poder establecer medidas correctoras.

Asimismo, y en lo que se refiere al SO₂, se especifica que en los focos 1 y 3 no se tendrá en cuenta la contribución de SO₂ de las plantas de recuperación de azufre SR 4 y 5 conectadas al foco 1 y las SR 3A y 3B conectadas al foco 3. Para controlar su contribución se deberá instalar la medición en continuo de los parámetros necesarios para el control de la carga contaminante. En caso de que técnicamente no sea viable, se elaborará un procedimiento de control de la aportación de las plantas de azufre. En estas plantas de recuperación de azufre se deberá garantizar un rendimiento mínimo, en condiciones óptimas de funcionamiento, del:

Planta de azufre	Rendimiento %
SR5 (>50 t/día)	97,5
SR4 (>50 t/día)	97,5
SR3A (>50 t/día)	97,5
SR3B (>50 t/día)	97,5

Por último, se señala que se deberá presentar un plan de mejora del rendimiento en las plantas de recuperación de azufre de forma que aumente el rendimiento mínimo garantizado, documento que deberá contar con la aprobación de la Viceconsejería de Medio Ambiente.

En el apartado correspondiente al Programa de Vigilancia Ambiental se recogen los parámetros de control y los contaminantes a medir, la periodicidad de todas

eta laginak hartzeko eta neurketak egiteko metodoak. Horrez gain, kontrol hori instalazioaz kanpoko entitate batek edo instalazioak berak egin dezakeen zehazten da.

Ingurumen-baimen integratuaren arabera, instalazioaren titularrak behar bezala erregistratu behar ditu Ingurumena Zaintzeko Programako azterketa eta txosten guztien emaitzak, eta emaitza horiek Ingurumen Sailburuordetzari bidali behar dizkio urtero.

Ingurumena Zaintzeko Programaren emaitza horiekin batera, ingurumen-gaietan espezializatutako entitate independente batek egindako txostena ere aurkeztu behar da. Txosten horretan alderdi hauek jaso behar dira: neurri zuzentzaileen eta prozesuak eta ingurumena kalitatea kontrolatzeko sistemen funtzionamendua, emaitzen azterketa, epe horretan izandako gertakarien aipamen berezia eta horien arrazoi eta konponbide posibleak eta egindako laginketen xehetasunak, aurretik zehaztu ez baldin badira.

Bestalde, berotegi efektuko gas-emisioen gaineko eskubideen merkataritzari aplikatzen zaion araubide juridikoari dagokionez, Poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 11ko 16/2002 Legearen 11. artikulua arabera, Lege horren xedea da, besteak beste, administrazio-egintza bakar batean bateratzea hondakinak ekoizti eta kudeatzeari buruz indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak (udal hondakinak eta hondakin arriskutsuak errausteari buruzkoak eta hondakinak isurtzeari eta ur kontinentaletara, saneamendu-sistema integralera eta lurretik itsasora isurketak egiteari buruzkoak eta atmosferako poluzioaren arloan indarrean dauden xedapenak, konposatu organiko lurrunkorrei eta lurzoruko poluzioa prebenitu eta zuzentzeari buruzkoak barne).

Berotegi efektuko gas-emisioen gaineko eskubideen merkataritza arautzen duen martxoaren 9ko 1/2005 Legearen arabera, berotegi efektuko gas-emisioak egiteko baimenaren edukia Poluzioaren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean araututako ingurumen-baimen integratua barnera daiten autonomia-erkidegoek zehaztutako baldintzetan.

Hala eta guztiz ere, berotegi efektuko gas-emisioak egiteko baimenak eta hiru urtean behin egiten den berotegi efektuko gas-emisioen gaineko eskubideen esleipenak lotura estua dutenez, ez da egokitzat jotzen berotegi efektuko gas-emisioak egiteko baimenaren edukia ingurumen-baimen integratua barneratzea, aurrez, egoera horrek sor ditzakeen ondorioak aztertu gabe.

las mediciones, las ubicaciones de los puntos de toma de muestras y los métodos para la toma de muestras y de medida. Asimismo, se especifica si el control se debe realizar mediante una entidad externa a la instalación o puede llevarse a cabo por la propia instalación.

La autorización ambiental integrada señala que el titular de la instalación deberá registrar debidamente los resultados de los diferentes análisis e informes que constituyen el programa de vigilancia ambiental, debiendo remitirse a esta Viceconsejería de Medio Ambiente con una periodicidad anual.

Estos resultados del Programa de Vigilancia Ambiental deberán acompañarse de un informe realizado por una entidad independiente y especializada en temas ambientales. El mencionado informe englobará el funcionamiento de las medidas correctoras y los distintos sistemas de control de los procesos y de la calidad del medio, análisis de los resultados, con especial mención a las incidencias más relevantes producidas en este período, sus posibles causas y soluciones, así como el detalle de la toma de muestras en los casos en los que no se haya especificado de antemano.

Por otro lado, en lo que se refiere al régimen jurídico aplicable al comercio de derechos de emisión de gases de efecto invernadero, debe recordarse que de conformidad con lo dispuesto en el artículo 11 de la Ley 16/2002, de 1 de julio, de Prevención y Control Integrados de la Contaminación la autorización ambiental integrada tiene como objetivo, entre otros, integrar en un solo acto de intervención administrativa las autorizaciones ambientales previstas en la legislación en vigor en materia de producción y gestión de residuos, incluidas las de incineración de residuos municipales y peligrosos, y en su caso, las de vertido de residuos; de vertidos a las aguas continentales, incluidos los vertidos al sistema integral de saneamiento, y de vertidos desde tierra al mar, así como las determinaciones de carácter ambiental en materia de contaminación atmosférica, incluidas las referentes a los compuestos orgánicos volátiles y de prevención y corrección de la contaminación del suelo.

La Ley 1/2005, de 9 de marzo, por la que se regula el régimen del comercio de derechos de emisión de gases de efecto invernadero, determina que el contenido de la autorización de emisión de gases de efecto invernadero podrá incorporarse a la autorización ambiental integrada regulada en la Ley 16/2002, de 1 de julio, de prevención y control integrados de la contaminación, en las condiciones que determinen las Comunidades Autónomas.

No obstante lo anterior, atendiendo a que la autorización de emisión de gases de efecto invernadero se encuentra estrechamente relacionada con la asignación de derechos de emisión de gases de efecto invernadero que se realiza por periodos de 3 años, no se considera óptimo proceder a la incorporación de la autorización de emisión de gases de efecto invernadero a la autorización ambiental integrada sin realizar previamente un análisis de las consecuencias que pudieran derivarse de dicha circunstancia.

Bukatzeko, 2004ko abenduaren 27ko ebazpenaren bidez, Ingurumen Sailburuordetzak berotegi efektuko gas-emisioak egiteko baimena eman zion Petróleos del Norte SA (Petronor) enpresak Muskizko udalean zuen instalazioari. 2007ko abenduaren 27ko ebazpenaren bidez, berriz, zenbait aldaketa egin zizkioten 2008-2012 epealdiko emisioen segimendurako metodologiari. Edonola ere, gogoratu behar da informazio hori guztia herritarren esku dagoela ingurumen-organoaren bulegoetan zein berotegi efektuko gas-emisioei buruzko Eskubideen Erregistro Nazionalan (Renade).

Zirkulazioari dagokionez, ingurumen-organoaren ingurumen-baimen integratuak ez du arlo hori arautzen, eta, beraz, dagokion organo eskudunari galdegin behar zaio.

3.- Zarata eta usainak.

a) Zaratzen mapa egitea eta euste-neurriak ezartzea proposatzen da.

b) Ez dago poluzio akustikoaren arazoa konpontzeko neurririk (ibilgailu eta kamioien zirkulazioa eta Super Sur errepidea, besteak beste), kontuan izanik OMEk ezarritako mailak gainditzen direla. Neurri horien bidez, babestutako guneei sortutako kalteak prebenituko lirarteke (besteak beste, Barbadun eremua, La Arena hondartza eta beste hezegune batzuk).

c) Goragalea eta buruko mina eragiten duten usainak daude gune hauetan:

– Uren tratamendurako putzuak. Putzu horiek estaltzea edo txikiagoak egitea eskatzen da.

– X-6 neutralizazio-putzua (AK-3 instalazioa). Kasu horretan, agitazio-sistemaren ordeztu, helize bidezko edo antzeko sistema mekanikoren bat erabiltzea proposatzen da.

d) Leq sistemaren ordeztu, beste neurketa-sistema bat erabiltzea eskatzen da, sistema horrek ez baitu balio zaratak eta usainek sortzen dituzten eragozpen errealko neurtzeko.

Ingurumen-baimen integratu honetan, sustatzaileak bere jardueraren egitean errespetatu beharreko zarata-mailak zehazten dira. Honela dio D.1.5. atalak:

«Beharrezko neurri guztiak ezarriko dira maila hauek ez gainditzeko:

a) Jardueraren ondorioz, etxebizitzaren barrualdera igorritako zaratak ez du inoiz ere izan behar 40 dB (A) baino handiagoa, 60 segundoko etengabeko Leq balioan neurtuta (08:00ak eta 22:00ak bitartean eta leiho eta ateak itxita daudela). Gehieneko balioetan ere, ez da 45 dB (A)-ko maila gainditu behar.

b) Jardueraren ondorioz, etxebizitzaren barrualdera igorritako zaratak ez du inoiz ere izan behar 30 dB (A) baino handiagoa, 60 segundoko etengabeko Leq balio-

Por último, únicamente cabe recordar que mediante Resolución de 27 de diciembre de 2004 del Viceconsejero de Medio Ambiente se concede autorización de emisión de gases de efecto invernadero a Petróleos del Norte, S.A. (Petronor) para su instalación sita en el término municipal de Muskiz, y que dicha autorización ha sido modificada en lo que se refiere a la metodología de seguimiento de las emisiones para el periodo 2008-2012 mediante Resolución de 27 de diciembre de 2007. En todo caso, debe señalarse que la información se encuentra a disposición de los ciudadanos en dependencias del órgano ambiental, así como a través del Registro Nacional de Derechos de emisión de gases de efecto invernadero (Renade).

En lo que se refiere al tráfico, debe indicarse que este aspecto no queda amparado en el ámbito de actuación de la autorización ambiental integrada a emitir por el órgano ambiental, y que dicha cuestión deberá trasladarse al órgano competente correspondiente.

3.- Ruido y olores.

a) Se propone realizar un mapa de ruidos y que se implanten medidas de contención.

b) Se indica la falta de medidas para solucionar la contaminación acústica que ya de por sí se supera los umbrales de la OMS, teniendo en cuenta el tráfico de vehículos, camiones, instalaciones como la supersur, entre otras. A fin de prevenir la afección a enclaves protegidos como la zona Barbadún y la playa de la arena y otros humedales.

c) Se señala la existencia de olores con efectos adversos de náuseas, vómitos y dolor de cabeza relacionados con los siguientes focos:

– La piscina de tratamiento de aguas, por lo que se solicita que se instale en cubierta para dichas piscinas o que estas se hagan más pequeñas.

– La balsa de neutralización X-6 (planta AK-3), para la que se propone que se sustituya su sistema de agitación por un sistema mecánico de hélice o similar.

d) Solicitan que se utilice otro sistema de medición diferente al Leq puesto que este no es válido para determinar o no la molestia real.

En la presente autorización ambiental integrada se recogen los valores límite de ruido que debe respetar el promotor en el ejercicio de su actividad, así en el apartado D.1.5 se establece lo siguiente:

«Se instalarán todas las medidas necesarias para que no se superen los siguientes niveles:

a) La actividad se adecuará de modo que el ruido transmitido al interior de las viviendas no deberá superar en ningún momento los 40 dB(A), medido en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, entre las 08:00 y 22:00 horas con las ventanas y puertas cerradas, ni los 45 dB(A) en valores máximos.

b) La actividad se adecuará de modo que el ruido transmitido al interior de las viviendas no deberá superar en ningún momento los 30 dB(A), medido en valor

aren arabera neurtuta (22:00ak eta 08:00ak bitartean eta leiho eta ateak itxita daudela). Gehienezko balioetan ere, ez da 35 dB (A)-ko maila gainditu behar.

c) Halaber, industria-eremuaren kanpoko itxiturako zarata-mailak ez du izan behar 60 dB (A) baino altuagoa, 60 segundoko etengabeko Leq balioaren arabera neurtuta.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du gainditu behar akustikoki oso sentikorrek diren eremuetako zarata-maila».

Ingurumena Zaintzeko Programan zehazten denez, sustatzaileak neurketak egin behar ditu urtero, eta aurkeztutako dokumentuaren arabera, erabiliko diren neurri teknikoaren baliozkotasuna ziurtatu behar da, dokumentazio horretan zehaztutako zarata-gune nagusiek eragindako kalteak murrizteko.

Edonola ere, sustatzaileak neurketak egiteko metodoei buruzko proposamen zehatz bat egin behar du. Proposamen hori ebazpen honetako E.9. atalean aipatutako Ingurumena Zaintzeko Programaren dokumentu bateginean txertatzen da, ondoren, ingurumen-organok onar dezan.

Bestalde, usainei dagokienez, usain txarrak sortzen dituzten guneen inbentario bat egin behar du sustatzaileak. Inbentario horrekin batera, usainak gutxitzeko neurri zuzentzaileak -eta, bereziki, hondakin-urak arazteko instalazioan aurreikusitako neurriak- ere aurkeztu behar dira, neurri horiek betetzeko epeekin batera.

4.- Uretara egindako isuriak.

a) Lurretik itsasora isurketak egiteko 1999an emandako baimenak 4 urteko indarraldia zuen, eta ez da berritu.

b) Finketako eta deslatastzeko hondakinak isurketapuntu beretik isurtzen dira, eta hori diluziotzat hartzen da.

c) 995/2000 EDn zehaztutako gehienezko emisio-balioak eta kalitate-helburuak ezartzeko, 606/2003 EDko parametroak hartu behar dira kontuan.

d) Isurketek ez dute betetzen Uren Zuzentaraua.

e) Isurketak egiteko baimenaren baldintzak berrikustean, gainazaleko ur-masen babesa, hobekuntza eta birsorkuntza bermatu behar dira, uren egoera ekologikoa ezin hobea izan dadin.

f) EPER parametroen zerrendan jasotzen diren eta jarduera horretan erabiltzen diren substantzien karakterizazioak falta dira.

g) Aurkeztutako dokumentazioan ingurune hartzaileari buruzko azterketa bat jasotzen da, EHUK eginda-

continuo equivalente Leq 60 segundos, entre las 22:00 y 08:00 horas, con las puertas y ventanas cerradas, ni los 35 dB(A) en valores máximos.

c) Asimismo, no deberá transmitirse un ruido superior a 60 dB(A) en valor continuo equivalente Leq 60 segundos, medidos en el cierre exterior del recinto industrial.

d) Las actividades de carga y descarga, así como el transporte de materiales en camiones, debe realizarse de manera que el ruido producido no suponga un incremento importante en el nivel ambiental de las zonas de mayor sensibilidad acústica.»

En el Programa de Vigilancia Ambiental se determina que el promotor deberá llevar a cabo mediciones anuales, de manera que se asegure la validez de las medidas técnicas que se van a incorporar, según la documentación presentada, para atenuar los efectos negativos por ruido asociados a los focos más relevantes señalados en dicha documentación.

En todo caso, el promotor deberá elaborar una propuesta concreta de mediciones que incluya los métodos detallados de medida, propuesta que se incorporará al documento refundido del programa de vigilancia ambiental al que se refiere el apartado E.9 de esta Resolución, para su aprobación por parte del órgano ambiental.

Asimismo, y en lo que se refiere a los olores, se requiere al promotor la elaboración de un inventario de los puntos de las instalaciones que producen malos olores. Junto al inventario se adjuntarán las medidas correctoras a aplicar para la minimización de los olores y en especial aquellas medidas previstas en la planta de depuración de aguas residuales junto a su plazo de ejecución.

4.- Emisiones a las aguas.

